

**Barrutiako zuzendaritza taldea eta ikasleen herrietako alkateak edo ordezkariak
2013/03/05**

a) Deialdia

Eguna: **2.013/03/05**

Ordua: 12:00etan

Lekua: Barrutia Herri Ikastetxean

b) Etorritakoak

Ajangiz: Mikel Ander Zubizarreta (Alkatea)

Arratzu: Josu Sabin Olano (Alkatea)

Ea: Juan Luis Landazabal (Alkatea) eta Jose Antonio Aranburu

Elantxobe: Koldo Olagibel(Alkatea)

Ereño: Ager Lejarreta (alkateordea)

Errigoiti : Iñaki Madariaga (Alkatea)

Gernika: Iñaki Gorroño (zinegotzia)

Aritz Ojinaga (Teknikoa)

Ibarrangelua : Peio Unanue (Zinegotzia)

Ezin parte hartu izana zuritu duenak: Kortezubi (Txomin Bilbao alkatea).

Falta izan direnak : Mendata (Joseba Mallea alkatea) eta Nabarniz(Lorena Zubizarreta alkatesa)

1) Gaurko gaia/k

Elantxobeko alkateak berak egindako kalkuluekin orriak banatu eta azaltzen ditu. Nabarmendu nahi da ikasleen arabera izan zein biztanleen arabera izan dagoen aldea. Honekin batera, une honetan udaleko ekonomiaren egoera dela eta, gastu guztiei aurre egitea ez dela erraza gaineratzen du. Bere ustez, aportazioa ikasleen arabera izateak zentzu gehiago dauka.

Gernikako teknikariak pasa dan batzarrean erabakitako irizpideak errespetatu behar direla erantzuten dio.

Ea-ko alkateak dio inbertsio eta mantenua -biak- ikasle kopuruaren arabera eginez Udal bakoitzari umeko dagokion aportazioa orekatuagoa dela.

Ajangiz-ko alkateak mahai gainean ipini du udal guztietan 2013urteko aurrekontuetako murrizketak gai honetan ere eragina dutela .

Teknikariak taula berri bat “ikasle kopuruaren arabera” egokitzen du, eta aurreko batzarrean hartutako erabakiarekin konparatuz, ordezkari guztiek onartzen dute diru ekarpena ikasle kopuruaren arabera izatea; urtero irizpidea berraztertzea eta datuak urtero eguneratuta ere ordaintzea.

Elantxobe-k eta Errigoiti-k Gernikari ordainketa ahalik eta lasterren egiteko konpromisoa hartzen dute.

Barrutia eskolak gasaren gastuei aurre egin die orain arte, baina gas tanga ipiniko denetik aurrera, Gernikako udalak bere gain hartuko ditu gastu hauek.

2) Erabakiak

Bai *inbertsio* baita *mantenu gastuak* ere *ikasle kopuruaren arabera* izango dira, urtero berraztertuko da irizpidea eta urte bakoitzeko datu eguneratuekin egingo da ordainketa.

3) Hurrengo bilera eguna

Ez da ipini.

Honela, besterik gabe, amaitutzat ematen du batzar hau eta nik neuk idazkariaren fedea ematen dut

ZUZENDARIA

M^a Begoña Diaz de la Torre

IDAZKARIA

Agurtzane Renobales